BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

421

EBAZPENA, 2014ko urtarrilaren 9koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena. Honen bidez jakinarazten da, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduan ezarritako laguntzak 2013ko ekitaldian jasoko dituzten erakunde onuradunen zerrenda; aipatutako agindu horren bitartez, EAEko lehentasunezko Kluster-etan sartuta dauden enpresen elkarteei diru-laguntzak arautzen dira.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean betebehar da publikotasun printzipioa. Hori dela-eta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduaren babesean emandako laguntzen onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin zaienez, ebazpen honen bidez onuradunen zerrenda argitaratuko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Aipatutako agindu horren bitartez, EAEko lehentasunezko Kluster-etan sartuta dauden enpresen elkarteei diru-laguntzak arautzen dira.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Xedea.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduan ezarritako laguntzei dagokienez, 2013ko ekitaldian onuradun izan diren erakundeen zerrenda argitaratzea (eranskina). Agindu horren bidez, EAEko lehentasunezko Kluster-etan sartuta dauden enpresen elkarteei diru-laguntzak arautzen dira.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 9a.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.

ERANSKINA

Erakunde onuraduna	Zuzkidura
Agrupación Cluster de Electrodomésticos de Euskadi, A.I.E. «ACEDE»	189.891,11
Asociación Cluster de Automoción de Euskadi «ACICAE»	189.891,11
Asociación Cluster de Industrias de Medio Ambiente de Euskadi «ACLIMA»	163.961,75
Asociación Española de Fabricantes de Máquinas-Herramienta, Accesorios, Componentes y Herramientas «AFM»	189.891,11
Asociación Cluster Audiovisual de Euskadi «EIKEN»	117.866,97
Asociación Cluster de Energía	163.732,04
Asociación para la Promoción de la Industria Marítima Vasca «Foro Marítimo Vasco»	189.891,11
Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País Vasco «Gaia»	171.282,62
Asociación Cluster de Aeronáutica y Espacio del País Vasco «Hegan»	164.776,74
Asociación Cluster del Papel de Euskadi «Cluster del Papel»	78.875,44
Asociación Uniport Bilbao / Comunidad Portuaria	179.940,00
Guztira	1.800.000,00